

# SARRERA

Gure proiektua sortzeko ideien zerrenda egiterakoan, gure egunerokotasunean erabilera emango diogun proiektua izan behar zela kontuan hartu genuen. Gure ideia App bat sortzea da non arropa jantzi edo probatu gabe nola geratuko zaizun ikusi daitekeen. Kontutan hartuta pertsona bakoitzaren altuera, zabalera eta lodiera datuak sartu behar direla.

Bereziki, hiru arrazoiengatik iruditzen zaigu gure proiektua baliagarria izan daitekeela.

Lehenengo arrazoa, askoz errazagoa egingo zaigula egunero zer jantzi erabakitzea izango da. Pertsona askok denbora gehiegi pasatzen dugu ispiluaren aurrean zer jantzi jakin gabe eta logela guztia hankaz gora jartzen dugu. App honi esker, logela jasotzea aurrezten dugu.

Bigarren arazoa, denbora asko aurreztuko dugula izango da. Outfit guztiak proiektatzen ditugunez, askoz errazago eta azkarrago aukeratuko dugu gure arropa. Hirugarren arrazoa, dendetan lana ere aurreztuko dute. Gertatu daitezkeen eragozpenak sahiestu daitezke, adibidez: makillaje zikinduta egotea edo puskatuta egotea. Gainera, Covid-19a dela eta oso lagungarria izan daiteke denbora eta lana aurrezteko kontaktu fisikoak eta egin beharreko desinfektazio prozesuak saihesteko. Gure ustez, ingurunea zaintzeko eta kutsadura murrizteko alternatiba ona da.

App-an zure armairuan dagoen arroparen argazkia igo behar da eta denda fisikoetan berriz, dendan saltzen duten arroparen argazkiak, gainera, denda fisikoetan, proiektore bat egongo da App-an ikusten dena paretan proiektatuz. Beste aldetik, informatiko espezializatu bat behar dugu diseñatutako App-a errealia izateko eta besteen konfiantza gure proiektuarengan irabazteko.